Getxo
UDALA • AYUNTAMIENTO

Fueros, 1
48992 GETXO (Bizkaia)
Tf: 94 466 00 00
Faxa: 94 466 00 85
http://www.getxo.eus

Sinatua: Larraitz Aberasturi Ibarra (HERRITARGOKO I.B. IDAZKARIA./SECRETARIA C.I. CIUDADANIA) Data: 2019/10/24 Fecha: 24/10/2019
Firmado: Keltse Eiguren Alberdi (Idazkaritza Nagusia eta Herritar Segurtasun Zinegotzia/Concejala de Secretaría Gral y Seg-Ciudadana) Data: 2019/10/28 Fecha: 28/10/2019

Akta 2/2019

**HERRITARGOAREN INFORMAZIO-BATZORDEAK 2019KO IRAILAREN 19 AN EGINDAKO BILERAREN AKTA.**

**ACTA DE LA SESIÓN CELEBRADA POR LA COMISIÓN INFORMATIVA DE CIUDADANÍA EL DÍA 19 DE SEPTIEMBRE DE 2019.**

**BILDUTAKOAK** / **ASISTENTES**:

**BATZORDEBURUA:** / **PRESIDENTA**:

KELTSE EIGUREN ALBERDI andrea

**BATZORDEKIDEAK:** / **VOCALES**:

(Jnak./Andk.) / (Sras./Sres.)

AINHOA GALDUROZ ALVAREZ (EAJ-PNV)
IRANTZU URIARTE GOMEZ (EAJ-PNV)
IÑIGO URKITZA YAÑEZ (EAJ-PNV)
FRANCISCO J. ELORZA HORMAECHE (PP)
NATALIA ARANDUY ZUAZAGOITIA (PP)
IBON RODRIGUEZ LARRINAGA (EH BILDU)
ITXASO MASEDA SARATXO (EH BILDU)
ASUNCIÓN OLAETA PÉREZ DE MENDIOLA (PSE-EE)
PAULA AMIEVA CLEMENTE (ELKARREKIN PODEMOS)

**IDAZKARIA** / **LA SECRETARIA**

LARRAITZ ABERASTURI IBARRA andrea

Udaletxeko Osoko Biltzar-aretoan, 2019ko irailaren 19an, Herritargoko Informazio-Batzordea bildu da, 11:10etan, Keltse Eiguren Alberdi andre zinegotzia batzordeburua izanik, eta aurrez aipatutako Udalbatzako kideak bertan direla.

En el Salón de Plenos de la Casa Consistorial, a 19 de septiembre de 2019, se reúne a las 11:10 la Comisión Informativa de Ciudadanía bajo la presidencia de la concejala doña Keltse Eiguren Alberdi, con asistencia de los corporativos expresados.

Lehendakariak, bilera egiteko legeak agintzen duen adina jende badagoenez, bilkura hastea erabaki du. Horrela, deialdiko

La Presidenta, visto que existía número legal suficiente, declaró abierta la sesión, pasándose a tratar los temas incluidos en el

Getxo
UDALA • AYUNTAMIENTO

Fueros, 1
48992 GETXO (Bizkaia)
Tf: 94 466 00 00
Faxa: 94 466 00 85
http://www.getxo.eus



Gai-zerrendan barneratutako gaiak jorratzen hasi dira. Honako hau da emaitza:

Orden del Día de la convocatoria, con el siguiente resultado:

**1.- 2019KO APIRILAREN 16AN EGINDAKO AURREKO BILERAKO AKTA ONESTEKO PROPOSAMENA, ZUZEN BADERITZA.**

**1.- PROPUESTA DE APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL ACTA DE LA SESION ANTERIOR DE FECHA 17 DE JULIO DE 2019.**

Aho batez onetsi da 2019ko uztailaren 17ko aurreko saioko akta, kontuan izan ostean PSE-EE udal taldearen izenaren zuzenketa, Asunción Olaeta Pérez de Mendiolak adierazitakoa.

Se aprueba por unanimidad el acta de la sesión anterior de fecha 17 de julio de 2019, tras tener en cuenta la rectificación de la denominación del grupo municipal del PSE-EE apuntada por Asunción Olaeta Pérez de Mendiola.

**1.- ARLOAREN INFORMAZIO OROKORRA.**

**2- INFORMACIÓN GENERAL DEL ÁREA.**

**2.1.- 2020KO EUSKARALDIAREN AURKEZPENA**

**2.1.- PRESENTACION EUSKARALDIA 2020**

Presidenteak Joxi Arakama euskara teknikaria aurkeztu du, 2020ko Euskaraldia azaldu behar du eta.

La Presidenta presenta a Joxi Arakama, Técnico de Euskera, que va a exponer Euskaraldia 2020.

Irantzu Uriartek baieztatu du 2020ko Euskaraldia aurkeztuko dela legegintzaldi honetan udalkide berriak daudelako batzordean, eta agian programa ezagutuko ez dutelako. Orain hasiko dira ekimen horren bueltan lanean. Jarraian, euskara teknikariari eman dio hitza.

Irantzu Uriarte afirma que se presenta Euskaraldia 2020 en la presente Comisión debido a que hay corporativos nuevos en esta legislatura y puede ser que no conozcan el programa, en el que se comienza a trabajar en este momento. A continuación da la palabra a al Técnico de Euskera.

Joxi Arakamak azaldu du Euskaraldia erakundeek (Eusko Jaurlaritzak, aldundiek eta udalek) nahiz euskararen erabilera normalizatzearen alde lanean diharduten eragile sozialek antolatzen dutela, eta gizarte osoari zuzenduta dagoela.

Joxi Arakama indica que Euskaraldia es una actuación promovida tanto por las instituciones (Gobierno Vasco, Diputaciones, Ayuntamientos) como por los distintos agentes sociales que trabajan por la normalización del uso del euskera y se dirige al conjunto de la sociedad.

2020ko Euskaraldia azaldu baino lehen, labur azaldu du 2018ko Euskaraldiaren balorazio positiboa. Horri buruzko datuak www.euskaraldia.eus webgunean daude eskuragarri.

Antes de explicar Euskaraldia 2020, expone resumidamente la valoración positiva del Euskaraldia 2018, cuyos datos en más detalle están disponibles en www.euskaraldia.eus.



Sinatua: Larraitz Aberasturi Ibarra (HERRITARGOKO I.B. IDAZKARIA/SECRETARIA C.I. CIUDADANIA) Data: 2019/10/24 Fecha: 24/10/2019
Firmado: Keltse Eiguren Alberdi (Idazkaritza Nagusia eta Herritar Segurtasun Zinegotzia/Concejala de Secretaria Gral y Seg-Ciudadana) Data: 2019/10/28 Fecha: 28/10/2019

Getxo
UDALA • AYUNTAMIENTO

Fueros, 1
48992 GETXO (Bizkaia)
Tf: 94 466 00 00
Faxa: 94 466 00 85
http://www.getxo.eus



Adierazi behar da Euskaraldia ekitaldi sozial masiboa dela, euskaraz ulertzen dutenen ahozko ohiturak aldatzeko helburua duena. Gizarte osora hedatu nahi duen ariketa da, eta 15 eguneko iraupen mugatua dauka, azaroaren 20tik abenduaren 4ra.

Señala que Euskaraldia es un ejercicio social masivo para cambiar los hábitos lingüísticos orales de quienes entienden euskara, se trata de un ejercicio que pretende llegar a toda la sociedad y tiene una duración limitada durante 15 días, que abarcará del 20 de noviembre al 4 de diciembre.

Adierazi du herritarrek Ahobizi, Belarriprest eta Irribarre roletan parte hartu ahal izango dutela. Azken hori Getxon bakarrik egongo da.

Indica que la ciudadanía podrá participar a través de los roles Ahobizi, Belarriprest eta Irribarre, este último exclusivamente para Getxo.

2020ko edizioko berritasun gisa, taldeko parte-hartzea nabarmendu behar da. Kulturaren eta kirolaren eremuetako elkarteek, saltokiek, tabernek eta langileen taldeek hartuko dute parte, besteak beste.

Como novedad de la edición de 2020 destaca la participación en grupo, con la intervención de entidades del ámbito cultural y deportivo, comercios, bares, grupos de trabajadores, etc.

Gaineratu du hiru rolen diseinuak dituzten txapak erabiliko direla, eta lanean ari direla horiek eremu digitalera hedatzeko, WhatsAppera adibidez.

Añade que se utilizarán chapas con los diseños de los tres roles, y que se está trabajando en ampliarlos a entornos digitales, tales como whatsapp…

**2.2.- UDALERRIKO JAIETAN UDALTZAINGOAN JARRITAKO SALAKETAK**

**2.2.- DENUNCIAS INTERPUESTAS EN LA POLICIA LOCAL DURANTE LAS FIESTAS DEL MUNICIPIO**

Orain arte udalerrian ospatutako festetako jai-esparruan gertatutako eta Udaltzaingoan salatutako delituen balantzea egin du presidenteak.

La Presidenta hace balance de los hechos delictivos denunciados ante la Policía Local en el entorno festivo durante las fiestas del municipio celebradas hasta la fecha.

Adierazi du jaiak lasaitasunez igaro direla, herritarren segurtasunerako arrisku handirik gabe. Hala, zentzu positiboan azpimarratu du azken urteetan ez dela biziaren aurkako deliturik egon.

Explica que las fiestas han transcurrido con tranquilidad, sin grandes situaciones de riesgo para la seguridad ciudadana, y destaca positivamente que en la línea de los últimos años no ha habido delitos contra la vida.

San Ignazioko, Romoko eta Portu Zaharreko jaietan zehar izandako indarkeriazko lapurreten, ebasketen, erasoek eragindako lesioen, sexu askatasunaren eta ukigabetasunaren aurkakoen, ekintza

Desglosa el número de robos con violencia, hurtos, lesiones por agresiones, contra la libertad e indemnidad sexual, daños por actos vandálicos, violencia de género y delitos contra la seguridad vial cometidos



Sinatua: | Larraitz Aberasturi Ibarra (HERRITARGOKO I.B. IDAZKARIA/SECRETARIA C.I. CIUDADANIA) Data: 2019/10/24 Fecha: 24/10/2019
Firmado: | Keltse Eiguren Alberdi (Idazkaritza Nagusia eta Herritar Segurtasun Zinegotzia/Concejala de Secretaria Gral y Seg-Ciudadana) Data: 2019/10/28 Fecha: 28/10/2019

Fueros, 1
48992 GETXO (Bizkaia)
Tf: 94 466 00 00
Faxa: 94 466 00 85
http://www.getxo.eus



bandalikoen ondoriozko kalteen, genero indarkeriaren eta bide segurtasunaren aurkako delituen kopurua xehatu du.

Ondorioztatu du jai lasaiak izan direla, gorabehera handirik gabekoak, eta espero duela Mesedeetako jaiak ere antzera joatea, edo are hobeto.

## 2.- ESKE-GALDEAK.

Paula Amievak adierazi du ELKARREKIN PODEMOSek bi galdera aurkeztu dituela komisio honetarako, eta horiek ez direla zehaztu bilkuraren deialdiko gai-zerrendan.

Presidenteak adierazi duenez, bat etorriz Udal Araudi Organikoaren aldaketa partzialaren 29. artikuluaren arabera, informazio batzordeetan udal taldeek egiten dituzten galderak idatziz egin behar dira udal erregistroan, batzordeko gai-zerrenda osatu baino bi egun lehenago gutxienez. Bada, galderak epez kanpo aurkeztu dira, eta horregatik ez dira txertatu gai-zerrendan.

Paula Amievak adierazi du galdera eta eskaeren ahozko txandan egingo dituela galderok.

**Eta ostean ahozko galderen tarteari ekin zaio:**

- Paula Amievak hitza hartu du, eta Romon abuztuaren 13an tokiko nekazariei nekazaritzako produktuak konfiskatu izanari buruz galdetu du. Zehazki, honako gai hauei buruz galdetu du: nekazariei tokiko produktua konfiskatzeko arrazoia, gerora izapidetutako jarduketak, jarduketaren arrazoi izan den ordenantza edo araudia, ea udal erregistroan edo Udaltzaingoan

durante las fiestas de San Ignacio, de Romo y del Puerto Viejo.

Concluye que han sido unas fiestas tranquilas, sin grandes sobresaltos, y que espera que las fiestas de Las Mercedes discurran en los mismos parámetros o mejores si cabe.

## 2.- RUEGOS Y PREGUNTAS

Paula Amieva manifiesta que ELKARREKIN PODEMOS ha presentado dos preguntas para esta Comisión, que no han sido especificadas en el orden del día de la convocatoria de la sesión.

La Presidenta señala que de conformidad con el artículo 29 de la Modificación parcial del Reglamento Orgánico Municipal las preguntas de los Grupos Municipales a las Comisiones Informativas deberán de formularse por escrito ante el registro municipal con al menos dos días de antelación a la confección del Orden del Día de la comisión, y que sin embargo las preguntas han sido presentadas fuera de plazo, razón por la que no se han incorporado al orden del día.

Paula Amieva indica que planteará las preguntas en el turno verbal de Ruegos y preguntas.

**A continuación se abre el turno de preguntas verbales:**

- Paula Amieva interviene para preguntar sobre el decomiso de productos agrícolas a agricultores locales que tuvo lugar el 13 de agosto en Romo. En concreto, pregunta sobre el motivo para llevar a cabo el decomiso del producto local a los agricultores, las actuaciones tramitadas posteriormente, la Ordenanza o Reglamento



Sinatua: Larraitz Aberasturi Ibarra (HERRITARGOKO I.B. IDAZKARIA/SECRETARIA C.I. CIUDADANIA) Data: 2019/10/24 Fecha: 24/10/2019
Firmado: Keltse Eiguren Alberdi (Idazkaritza Nagusia eta Herritar Segurtasun Zinegotzia/Concejala de Secretaria Gral y Seg-Ciudadana) Data: 2019/10/28 Fecha: 28/10/2019

Fueros, 1
48992 GETXO (Bizkaia)
Tf: 94 466 00 00
Faxa: 94 466 00 85
http://www.getxo.eus





nekazarien salmentarako baimen-eskaerarik dagoen, nork ematen dituen baimenak eta ea erantzunik eman zaien ukitutako pertsonei.

que ha motivado la actuación, si consta en el registro municipal o en la Policía Local solicitud de autorización para la venta de los agricultores, quién concede los permisos y si se ha dado respuesta a las personas afectadas.

Presidenteak dio oraingo honetan datu nahikoa dituela egindako galderari erantzuteko.

La Presidenta responde que en esta ocasión tiene datos suficientes para responder a la pregunta formulada.

Jakinarazi du abuztuaren 12ko 20:30ean Udaltzaingoak ikusi zuela pertsona bat zegoela baratzeko produktuak saltzen Romoko San Jose elizako arkupean. Poliziak galdetu zuenean ea jarduera hori garatzeko udal lizentziarik bazuen, saltzaileak ezetz erantzun zuen. Hala, agenteek jakinarazi zioten kalez kaleko salmenta ez dagoela baimenduta udal lizentziarik izan gabe eta, horrenbestez, jarduera eten behar zuela. Bada, saltzaileak adierazi zuen ez zuela horretarako asmorik, eta ez zituela kenduko bere produktuak.

Informa que sobre las 20:30 horas del día 12 de agosto la Policía Local observa que hay una persona ejerciendo la venta de productos hortícolas en el soportal de la Iglesia de San José de Romo. Ante la pregunta de la policía si dispone de licencia municipal para ejercer tal actividad, el particular contesta que no la posee, por lo que los agentes le informaron que no está autorizada la venta de ambulante sin autorización municipal y que debía cesar la actividad, a lo que el vendedor manifestó que no tenía intención de hacerlo, ni de retirar los productos que tenía expuestos.

Saltzaileak behin eta berriz egin zionez uko, agenteek produktuak konfiskatu zituzten, eta jakinarazi zioten Udaltzaingoaren bulegotik pasatu ahal zela horiek jasotzera. Hori hurrengo egunean gertatu zen, eta erretiratutakoa itzuli zitzaion, okupazioaren aktaren kopia batekin batera.

Ante la negativa reiterada por parte del vendedor, los agentes procedieron al decomiso de los productos informándole de que podría pasar a retirarlos por las dependencias de la Policía Local, hecho que se produjo al día siguiente cuando le fue devuelto el género retirado acompañado de una copia del acta de ocupación.

Jarduketa honen ondorioz, salaketa akta idatzi zen, Kalez kaleko salmentari buruzko udal ordenantzaren 14.4 artikulua urratu zela eta. Izan ere, saltzaileak ez zeukan udal baimenik, eta hori arau-hauste larri gisa sailkatuta dago 30.3.d artikuluan. Horrez gain, jarduera eteteari uko egin zionez, 30.3.f artikulua ere urratu zuen.

Con motivo de esta actuación se redacta acta de denuncia en base a la Ordenanza Municipal de Venta Ambulante, infracción del artículo 14.4 por carecer de la autorización municipal tipificada como falta grave en el artículo 30.3.d, así como negativa a cesar la actividad, artículo 30.3.f.

Udaltzaingoan edo udal erregistroan nekazariak salmentarako egindako eskaerarik ote dagoen dioen galderari

Respecto a la pregunta de si consta en el registro municipal o en la Policía Local solicitud de autorización para la venta del



Sinatua: Larraitz Aberasturi Ibarra (HERRITARGOKO I.B. IDAZKARIA/SECRETARIA C.I. CIUDADANIA) Data: 2019/10/24 Fecha: 24/10/2019
Firmado: Keltse Eiguren Alberdi (Idazkaritza Nagusia eta Herritar Segurtasun Zinegotzia/Concejala de Secretaria Gral y Seg-Ciudadana) Data: 2019/10/28 Fecha: 28/10/2019

Fueros, 1
48992 GETXO (Bizkaia)
Tf: 94 466 00 00
Faxa: 94 466 00 85
http://www.getxo.eus

Sinatua: Larraitz Aberasturi Ibarra (HERRITARGOKO I.B. IDAZKARIA./SECRETARIA C.I. CIUDADANIA) Data: 2019/10/24 Fecha: 24/10/2019
Firmado: Keltse Eiguren Alberdi (Idazkaritza Nagusia eta Herritar Segurtasun Zinegotzia/Concejala de Secretaria Gral y Seg-Ciudadana) Data: 2019/10/28 Fecha: 28/10/2019



erantzunez, presidenteak adierazi du norbait ahoz jarri zela harremanetan Bide Publikoko Sailarekin, eta jakinarazi zitzaiola bide publikoan edozein jarduera egiteko eskaera aurkeztu behar dela; hala, aztertu egiten da ea kalez kaleko salmenta baimendu daitekeen. Hala ere, ez dago jasota inolako eskaerarik.

Gaineratu du aste honetan jarduera bera antzeman dela, eta pertsona hori identifikatu egin dela, araudiari jarraikiz. Paula Amievak gertaeren tokiari buruz egindako galderari erantzunez, presidenteak esan du toki berean gertatu zirela.

- Udalerriko jaietan zehar Udaltzaingoan jarritako salaketei buruz presidenteak emandako informazioaren harira, Francisco J. Elorzak galdetu du ea informazio hori festetan zehar jaietako esparruan gertatutakoei buruzkoa den soilik.

Presidenteak baietz erantzun du. Jai-eremutik kanpo gertatu zenez, ez da kontuan hartzen udal jaietan gertatutako delitu gisa. Adierazi du duela gutxi Areetako etxebizitza batean egindako delitua ez dela herriko jaien ondorioz gertatu. Gainera, gertaera hori ez zen izan Algortako jaietan, baizik eta lehenago, eta inolaz ere ez zen gertatu jaien esparruan.

Itxaso Maseda Saratxok galdetu du ea aurten tokiko merkataritza babesteko Getxo Bono kanpaina martxan jarriko den. Izan ere, iaz irailaren 17an hasi zen, eta aurten ez dute izan horren berririk.

Iñigo Urkitzak hartu du hitza, eta adierazi du aurten Getxo Bonoren beste edizio bat egongo dela. Gaineratu du galdera hori

agricultor, la Presidenta contesta que alguna persona se dirigió de forma verbal al Departamento de Vía Pública y se le informó que para cualquier actividad en vía pública es necesario presentar solicitud, y se analiza si entra dentro de los supuestos permitidos de venta ambulante. Sin embargo, no consta solicitud alguna.

Añade que esta semana se ha observado la misma actividad y que la persona ha sido identificada conforme a la normativa. Ante la pregunta de Paula Amieva sobre el lugar de los hechos, la Presidenta responde que ha sido en el mismo lugar.

- Francisco J. Elorza pregunta, al hilo de la información proporcionada por la Presidenta en relación con las denuncias interpuestas en la Policía Local durante las fiestas del municipio, si esta información se refiere a delitos acontecidos exclusivamente en recinto festivo durante las fiestas.

La Presidenta contesta que sí. Si se produce fuera del recinto festivo no se computa como hecho delictivo cometido con ocasión de las fiestas municipales. Refiere que el delito cometido en una vivienda de Las Arenas recientemente no es un hecho delictivo producido con motivo de las fiestas municipales. Además, este hecho no se produjo durante los días de fiestas de Algorta, sino antes, y en modo alguno en recinto festivo.

Itxaso Maseda Saratxo pregunta si este año se va a poner en marcha la campaña Getxo Bono para apoyar al comercio local, porque el año pasado la campaña comenzó el 17 de septiembre y este año no disponen de información al respecto.

Iñigo Urkitza interviene para indicar que este año habrá nueva edición del Getxo Bono y que se dará respuesta a la pregunta con más detalle en la siguiente Comisión

Getxo
UDALA • AYUNTAMIENTO

Fueros, 1
48992 GETXO (Bizkaia)
Tf: 94 466 00 00
Faxa: 94 466 00 85
http://www.getxo.eus



zehatzago erantzungo dela aurrerago, hurrengo batzordean.

Paula Amievak adierazi du Artazako suhiltzaileen parkeko arduradunak oraindik ez duela jaso Getxon uztailean ospatutako ekintza jendetsuei (Aixerrotako paellak eta Getxoko Zirkuitua) buruzko informaziorik. Galdetu du ea 2019an egindako ekintza jendetsuei buruzko informaziorik bidali zaion Suhiltzaileen Zerbitzuari, eta ea udalak egokitzat jotzen duen zerbitzu horri ez ematea ekintza jendetsuetan gorabeherak gertatuz gero beren lana egiteko behar duten oinarrizko informazioa.

Paula Amieva manifiesta que el cabo responsable del parque de bomberos de Artaza no ha recibido información de los actos multitudinarios celebrados en Getxo en julio como son las Paellas de Aixerrota y el Circuito de Getxo. Pregunta si en 2019 se ha enviado algún tipo de información sobre los actos multitudinarios realizados al Servicio de Bomberos, y si el Ayuntamiento considera adecuada la práctica de no facilitar a los Servicios de Extinción de incendios información esencial para el desempeño de sus funciones en caso de incidentes en actos multitudinarios.

Presidenteak erantzun du kasu honetan, galdera epez kanpo egin denez, ez duela informaziorik eskura eta, horrenbestez, hurrengo batzordean erantzungo dela.

La Presidenta responde que en este caso al presentarse la pregunta fuera de plazo no dispone de información, por lo que se dará respuesta en la siguiente Comisión.

Paula Amievak adierazi du datuak edukiz gero, ondo etorriko litzaiekeela informazioa idatziz izatea. Presidenteak erantzun du Batzordeari egiten zaizkion galderak ahoz erantzuten direla batzordean bertan.

Paula Amieva indica que si se conocen los datos les vendría bien disponer de información por escrito. A lo que la Presidenta contesta que la preguntas a la Comisión se contestan oralmente en la misma.

- **Keltsek galdetu du ea herritarren beste galderarik dagoen**. Ez dago galderarik.

- **Keltse pregunta si hay alguna pregunta de la ciudadanía**. No hay preguntas.

Eta aztertzeko gai gehiagorik ez dagoenez, batzordeburu andreak bilkura bukatutzat eman du egun horretako 11:42 direnean, horrela, bere emaitzarekin akta hau luzatu da, nirekin batera Batzordeburu andreak ere sinatu duela, hori guztia nik, idazkari naizenak, ziurtatzen dut.

Y no habiendo otros asuntos que tratar, la Sra. Presidenta levantó la sesión siendo las 11:42 horas de este día, extendiéndose con su resultado la presente acta, firmando en unión mía la Sra. Presidenta, de todo lo cual yo, la Secretaria, doy fe.



Sinatua: Larraitz Aberasturi Ibarra (HERRITARGOKO I.B. IDAZKARIA/SECRETARIA C.I. CIUDADANIA) Data: 2019/10/24 Fecha: 24/10/2019
Firmado: Keltse Eiguren Alberdi (Idazkaritza Nagusia eta Herritar Segurtasun Zinegotzia/Concejala de Secretaria Gral y Seg-Ciudadana) Data: 2019/10/28 Fecha: 28/10/2019